



PDF irisgarria



Irakurketa Errazean

# Memoria Guneak

## Zer aurkituko duzu hemen?

Dokumentu hau Irakurketa Errazean dago.

Irakurketa Erraza

ulertzeko errazagoak diren dokumentuak

sortzeko modu bat da.

**Irakurketa Erraza** ondo etortzen zaie

ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonei,

eta adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonei.



Irudi urdin hau

Irakurketa Errazeko Europako logotipoa da.

Logotipo hau

dokumentu edo liburu batean ikusten duzunean,

horrek esan nahi du ulertzeko errazagoa dela.

## Sarrera

1936. urtean

Espanian Gerra Zibil bat egon zen.

Gerra frankistek irabazi zuten,

hau da, Francisco Francoren

diktaduraren alde zeuden pertsonak.

Diktadura pertsona batek botere osoa duen

gobernu-modua da.

Pertsona hori gobernuan dago

herritarrek aukeratu gabe.

Frankistek Francisco Francoren kontra zeuden

pertsona asko hil zituzten.

Haien ideia desberdinak zituzten

pertsona asko ere hil zituzten.

Pertsona hauek hobietan lurperatu zituzten.

**Hobiak** hildako pertsonak lurperatzeko balio duten

lurrean egindako zuloak dira.

Askotan hiltzaileak biktimen herrietako bizilagunak ziren.

Hildakoen emakumeek eta seme-alabek

urte askotan zehar

haien senideen hiltzaileekin bizi behar izan ziren.

Hau oso gogorra izan zen senideentzat

hiltzaileek ez zutelako haien krimenengatik

inolako zigorrik jaso.

Senideak kalera ateratzeko

edo eskolara joateko beldur ziren.

Beste pertsona batzuk

erbestera joan behar izan ziren.

**Erbesteratzea** herrialdetik ihes egitea

eta beste herrialde batean babesari bilatzea da.

Web orrialde honetan dagoen

informazioa ulertzeko

garrantzitsua da

jarraian dituzun hitz hauek ezagutzea:

**Memoriala:**

Pertsonek

historian gertatu den zerbaitek gogoratzeko

eraikitzen den monumentu

edo eraikina da.

**Monolitoa:**

Harrizko monumentu bat da.

**Desobiratzea:**

Hobietan dauden pertsonen gorpuzkiak

lurpetik ateratzea.

**Desobiratze goiztiarrak:**

1978. urtetik aurrera  
frankismoaren biktimen senideek  
egin zituzten desobiratzeak dira.

**DNA bankua:**

**Maite** dituzten pertsonen bila ari diren  
senideen ileak edo listua gordetzen diren lekua da.  
Horrela, gorpuzkiak aurkitzen dituztenean  
DNA Bankuarekin bat datozen ala ez ikus dezakete.  
Bat badatoz esan nahi du  
aurkitu dituzten gorpuzkiak beren maiteenak direla.